



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
Kazetaria eta ikertzailea

Daesh (Estatu Islamikoa) etsai moduan aurkezteko estrategiak

rakeko eta Siriako Estatu Islamikoari (ISIS, ingelesez) orain Daesh esan behar diogula ikasi berri dugu, Parisen 130 lagunek bizia galdu ondoren. Estatu Islamiko esaten badiogu, zelanbaiteko egitura politikoa aitortzen ari gaitzaizkio. Horregatik, arabierazko Daesh adiera erabiltzeko gomendatu dute, talde terrorista legez ikusiko dugulako. Are gehiago, geuk hondoratutako bi herrialdetan (Iraken eta Sirian) indartutako talde armatua dela ahaztuko dugu.

Daesh (oraintsu arteko Estatu Islamikoa) gure askatasunen aurka diharduen talde terrorista omen da, hildako gehienak musulmanak badira ere:

- «*Exhuman 470 cadáveres asesinados por el Estado Islámico en Tikrit [Irak]*» ("La Vanguardia", 2015/05/28).

Parisko atentatuak eta gero, Frantziako presidente François Hollandek Daesh «gure» etsaia dela azaldu zuen. Horregatik, bere kideak erailteza leundu dute hedabideek, poliziak tirokatu dituela aipatu barik:

- «*Francia confirma que el cerebro de los atentados de París es uno de los fallecidos en Saint Denis*» ("El Correo", 2015/11/19).
- «*Abaaoud, cerebro de los atentados de París, identificado como uno de los fallecidos en Saint Denis*» ("Deia", 2015/11/19).

Hedabide gutxi batzuek eraildakoak Parisko atentatuen erantzule legez epaitu ez dituztela nabarmendu zuten. Horregatik, atentatuak pres-tatu izana ere egiaztatu barik dagoela azpimarratu zuten:

- «*Abdelhamid Abaaoud, supuesto cerebro de los ataques, murió en el asalto de Saint-Denis*» (Naiz, 2015/11/19).
- «*Pariseko atentatuen 'burua' litekeena Saint Deniseko oldarrean zendu zen*» (Kazeta, 2015/11/19).

Oldarraldian txakur bat ere hil zen. Horrenbestez, txakur-rak poliziak hildako zazpi lagunek baino erruki handiagoa jaso du:

- «*Los terroristas matan a Diesel, un perro policía, en el asalto al piso*» (Informativos Telecinco, 2015/11/18).
- «*La muerte de un perro policía en el asalto policial de Saint-Denis genera un movimiento de solidaridad*» ("El Periódico de Catalunya", 2015/11/18).

Txakurraren heriotzaz hunkituta sentitu arren, oldarraldian hildako emakumearen irudia degradatu dute hedabideek:

- «*La terrorista fallecida en la redada de Saint Denis: jueguista y fracasada*» ("El Correo", 2015/11/22).

Bere Facebook kontutik ateratako argazki batekin ilustratu dute albistea, baimenik gabe, jakina, emakumea hilda dagoelako. Gainera, argazki hori bere ohorearen aurkakoa litzateke, orain beste modu batean atera gurako lukeelako: ilea tapatuta, esaterako. Hollanderen berri emateko bere amorantearen etxetik kasko batekin atera zen eguneko argazkia erabiltzen ez duten bezala, poliziak hildakoei ere errespetu bera zor diete hedabideek.

Daesh gure askatasunaren etsaia dela esan arren, Frantziak berak herritarren eskubideak eta askatasuna murrizten dituen larrialdi egoera deitu zuen, segurtasunaren izenean. Hiru hilean herritarrek ezin dezakete gobernua kritikatu. Neurri antidemokratiko horri aurre egiteko, gutxienez, bi manifestaldi deitu dituzte Frantziar. Hollanderen Gobernuak biak debekatu ditu: etorkinen aldekoa eta klima aldaketaren aurkakoa. Espainiako hedabideek ez zuten etorkinen aldeko manifestaldiaren berri eman:

- «*A Paris, la manifestation pro-migrants se transforme en défilé contre l'état d'urgence*» ("Le Monde", 2015/11/23).

- «*Manifestación no autorizada en París en apoyo a migrantes deja a 58 manifestantes siendo investigados por la policía*» (Txileko La Izquierda Diario, 2015/11/24).

Klima aldaketaren aurkako manifestaldiaz, ordea, istiluak aipatu zituzten:

- «*Un centenar de detenidos en los altercados durante la manifestación en París contra el cambio climático*» ("Deia", 2015/11/29).
- «*Gases lacrimógenos y cargas en la manifestación prohibida contra la cumbre del clima en París*» ("La Vanguardia", 2015/11/30).

Hala ere, hedabideek ez dute jendarmeez profanatutako Parisko atentatuetakoa biktimen omenezko lekua argazkirik argitaratu. Gure etsaia Daesh delako, urruneko musulmanak barra-barra hiltzen dituen talde armatuak gure eskubideak murriztu gura omen dituelakoan, gure egoeraren erantzulea Gobernua dela ezkutatzeko.



Jendarmeez profanatutako Parisko biktimen omenezko lekua. GAUR8